



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-01-22

VIIURTEA 1.609.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Argazki erakusketan ikusgai dagoen irudietako bat. HITZA

## ALPEETAKO ARGIEKIN, IRUDI EDERRAK

**AMASA** Egoitz Bengoetxearen eta Gorka Lopezen 'Alpeetako argiekin jolastuz' argazki erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean 4

## Sendi Ekintzako kideek aro berriari ekingo diote.

Baionan izan den emakume baten erailketa salatu du Bilgune Feministak 2

## Aurrekontua murriztu arren, «kultura bide beretik»

**TOLOSA** %20 murriztu dute kulturari dagokiona; 2008ari buruz, balantze baikorra egin dute 3



Ezker abertzaleak atzo egin zuen prentsaurrekoaren une bat. EEZEIZA

## «Aurrekontuak herriaren interesen aurkakoak dira»

**TOLOSA** Zenbait murrizketa egiteko «krisia aitzakiatzat hartu» dutela dio ezker abertzaleak 2



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAREN Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



# «Herri interesen aurkakotzat» jo ditu aurrekontuak ezker abertzaleak

**Politika** » Zenbait murrizketa egiteko krisia aitzakiatzat hartu dutela salatu dute, eta zenbait ataletan, igoerak egin.

## ESTI EZEIZA

Tolosako Udalbatzak iaz burutako azken Osoko Bilkuran 2009rako aurrekontuak onartu zituen. Hauek aztertu ostean, ezker abertzaleak «aurrekontu atzera-koitzat» jotzen ditu, «herri interesen aurka eginikoak» direla argi utzi.

Ezker abertzaleak salatu du, «krisi ekonomikoak aitzakiatzat hartu eta gezur handi bat eraiki» dutela Udaleko kideek. Izan ere, luzatutako datuen arabera ondorengo arlotan egin dituzte murrizketak: kultur ikuskizumetan, kultur diru laguntzetan, hezkuntza arloan, euskara zerbitzuan, prebentzio arloan, etxez-etxe laguntzako dirutan, INEMen bidez lanpostuak sortzeko diru partidan... Baina bestalde, Antton Izagirre Tolosako alkate ohiak azaldu-takoaren arabera, «herritarro zergak igotzerakoan ahaztu egin zaie krisia dagoenik, urteko batz besteko KPIa %1,5ekoa izan baldin bada ere, herritarro oro har zergak %4,9an igo baitizkigute, zabor bilketaren kasuan berriz %20an».

## Foru Aldundiaren ekarpenetan murrizketak

Aurrekontuaren inguruan egindako gaitzespenen artean, ezker abertzalekoek aipamen berezi bat egin dute Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean izandako jarreraz. Izan ere, Aldundiak Tolosako Udalari egin be-



Ezker eskuin: Hektor Espin, Eider Elduain, Antton Izagirre eta Silvana Ostiza. E. EZEIZA

## » LUZATUTAKO DATUAK

- **Aurrekontuetan, partida haue-tan murrizketak.** kultur ikuskizumetan, kultur diru laguntzetan, hezkuntza arloan, euskara zerbitzuan, prebentzio arloan, etxez-etxe laguntzako dirutan, INEMen bidez lanpostuak sortzeko diru partidetan.
- **Zergak.** Orohar zergak %4,9 igo dira, zabor bilketaren kasuan %20.
- **Politikarien soldatak.** Goi kargu liberatuen diru partida %3,4 igokoa da aurrean.
- **Udal langileen soldatak.** %6ko igoera aurreikusita da, benetako igoera %2,5ekoa izango denean.
- **Hirigintza saila.** Pertsona laboral eta ez finko gehiago kontratatzen jarraitu dute Baita, zerbitzuak azpi-kontratatzen ere.
- **Foru Aldundiaren ekarpenak.** Hemen murrizketa handiak egon dira.

harreko ekarpenak asko murriztu dira eta honek «arriskuan jartzten du Udalen orain arteko funtzionamendua eta jarduera maila». Bestalde, kritikatzan dute Foru Aldundiaren aurrean Udaleko ordezkari politikoek izandako jarrera, erabakiaren aurrean «mutu» geratu direla argudiatuz. «Ez dute behatz bat ere mugitu bigabekeria honen aurrean», gaineratzen dute.

Atzo egindako agerraldian Antton Izagirrek agertu zuen, «murrizketa hauek egiteko garaian, Foru Aldundiak erabili duen argudioa ondorengo dela: zergen bidez gutxiago jasoko duela. «Honen aurrean, Aldundiaren erabakia betetzera deitu ditu Udalak, eta hau ontzat eman du Eudeleko lehendakari eta Tolosako alkate den Jokin Bildarratzek», dio Izagirrek. Honen bestez, ezker abertzaleko kidearen iritziz, «jarrera honen baitartez, zerga gutxiago jasotzea,

EAJk Enpresariei Elkarteen Zerga tipoa jaistearren eta Patrimonioren gaineko zerga ezabatzearen ondorio izan dela ezkatutu nahi dute». Azkenik, ondorioa delarik, udalei orokorrean, eta Tolosakoari zehazki, egindako murrizketa ekonomiko handia. Hala, honek erakusten du ezker abertzalekoen esanetan, «EAJren politikaren funtsa, gehien duenari zergak gutxitu, baina herritarro zergan igo eta igo eta igo».

Honen aurrean, udalek, finantziario justua, duina eta nahikoa behar dutela aldarrikatzen du ezker abertzaleak, eta hori exijitu behar diotela Gipuzkoako Foru Aldundiari. Honetaz gain, deritzote, Udalen autonomia eta eragiteko esparrua babestu behar dela eta krisiaren aurrean eragile aktiboagoa bilakatu. «Helburu hau lortzeko, finantziario eredu berria behar dute udalek»; hori da exijitzen dutena.

## L Laburrak

### Zoriontasunaren inguruko hitzaldia izango da bihar

**AISIA** • Sanatana Dharma yoga eskolaren eskutik hitzaldia izango da bihar 18:00etan, Lizardi plaza, 2an. Zergatik egiten zaigu horren zaila zoriontasu izatea?, Zoriontasuna, existitzen al da?, galdera hauei erantzuten saiatuko da Bharat Yogacharia. Saioa irekia da, eta dohainik hartu daiteke parte.

### Tolosa CF-ren ohiko batzarra izango da bihar

**KIROLAK** • Tolosa CFren Ohiko batzarra eta ezohikoa izango dira bihar iluntzean. 19:30ean hasiko da bilera, eta Kultur Etxean izango da. Bertan, besteak beste, aurtengo egitasmoen inguruan mintzatu-tuko dira.

### 'La soledad del corredor de fondo' filma ikusgai gaur

**KIROLAK** • Zine Forumaren eskutik *La soledad del corredor de fondo* filma jatorrizko bertsoian ikusgai ikusgai izango da Leidor antzokian. Ohikoa den bezala, lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

<b>OSASUNA.</b>
<b>Alegialdea.</b> Osasun z.: 943 653212
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde.</b>
Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b> Medikua: 943 692423
<b>Baliarrain.</b> Medikua: 943 889003
<b>Berastegi-Elduain.</b>
Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b> Medikua: 943 681134
<b>Ibarraldea.</b> Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b> Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b> Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b> Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b> Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b> Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b> 943 461111
<b>San Esteban:</b> 943 006800
<b>Gernikako arbola:</b> 943 006900
<b>Amarozko dispen:</b> 943 672637
<b>Asuncion klinika:</b> 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
<b>DYA:</b> 943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b> 943 674888
<b>Villabona.</b> Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b> Aiztondo zerb.: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>
<b>Renfe:</b> 902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b> 943 361740
<b>Tolosaldeko bus:</b> 943 650621
<b>Leitzaran autob.</b> : 948 221015
<b>Taxia:</b> 943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b> 608 873016
<b>BESTERIK.</b>
<b>Ertzaintza:</b> 943 538820
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b> 943 675858
<b>Tolargi:</b> 943 650016
<b>Iurramendi egoitza:</b> 943 670325
<b>Tolosa gasa:</b> 943 675320
<b>Alkoholiko anonimoak:</b> 943 248474

## Baionako erailketa salatu dute hemen ere

**GIZARTEA** • Tolosaldeko Bilgune Femenistak deituta elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean, Triangulo plazan, Baionan izan den azken erailketa salatuz. Hainbat lagun bildu ziren *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu!* lelopean. Agerraldi honekin garbi utzi zuten, besteak beste, «nazkatuta» daudela indarkeria kasuak «gertaera kasuak isolatu bezala tratatzeaz, erakundeek biktima soilak bagina bezala tratatzeaz». Honen aurrean, «neurri integral eta prebentziozkoak» eskatu zituzten. 2009 urteak Euskal Herrian utzi duen lehendabiziko erailketa kasua izan da Baionakoa. E. EZEIZA



# Aurrekontua murriztuta ere, «ildo bera jarraitzeko esfortzua egingo dugu»

**Kultura** » 2009an %20 murriztuko da kulturari eskaintako dirua; 2008ari buruz, balantze baikorra egi du Kultura Sailak.

INIGO TERRADILLOS

Pasa den urteko kultur jardunaldien balorazioa egiterakoan, oro har, pozik daudela azaldu dute Kultur Batzordeko kideek, eta «aldatzeko edo hobetzeko gauzak dauden arren, bide onetik» doazela. 2009. urteari begira, kulturari dagokion aurrekontua pasa den urtekoarekin alderatuz %20an murriztuko duten arren, «ildo beretik jarraitzeko esfortzua» egingo dutela adierazi dute, eta «aurtengorako datu aipagarriena, To.pic zentroa zabalduko dutela eta erabilgarri izango dela da».

## Udal Liburutegiko zerbitzua «nabarmentzekoa»

Urte berria hastarekin batera, igaro berri den urtearen inguruko hausnarketa egiteko unea izaten da. Atzo eman zituzten jakitera go-goeta horren ondorioak. Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak Udal Liburutegi eskaintzen duen zerbitzua azpimarratu nahi izan zuen: «urteik urtera hobetuz doan zerbitzua da, eta hori jendeak nabaritzen duenez, erabiltzaileen kopuruak ere gora egiten du; zerbitzuaren hobekuntza eragin handia izan du liburutegiko zuzendaritza postu berriak, eta ordu-tegiaren aldaketak». Halaber, pasa den urteko udan martxan jarritako Usabal kiroldegiko igerilekuko liburutegi zerbitzua «oso arrakastatsua» izan zela azaldu zuen.

Bestalde, liburutegien elkarlanaren ondorioz, katalanez idatzitako liburuak daude egun Liburu-



Jokin Monfort, Andoni Iturzaeta eta Irene Larraza, atzoko aurkezpenen. I.T.

tegiaren, eta Haur Liburutegian hizkuntza askotarikoak jarri dituzte; «erronka Udal Liburutegian ere eskaintza zabaltea da».

## Udal Artxiboaren lana gizarteratzeko asmoa

Urtetan zehar tolosarrentzat elementu ezezagunenatarikoa izan dela Udal Artxiboa gaineratu zuen Iturzaetak. «Gure helburua bertan egiten den lana gizarteratzea da». Xede horrekin pasa den urtean abiarazi zuten ekimena gogorarazi zuen: «historikoki oso aberatsa izan da Tolosa, eta hori errekupe-ratu behar dela ikusi dugu Kulturaren sailetik, horregatik jarri berri dugu martxan *Bayoneta* aldizkaria». Historiaren dibulgazioan lehen urratsa izan dela hori aipatu zuen, eta gehiago egongo direla; halaber, Lizardi elkarteak antolatutako historiaren inguruko hitzal-diak ere nabarmendu zituen.

## Musika Eskolaz azken urteetako bilakaera

Bestalde, Eduardo Moco-roa Musika Eskolaren inguruan, azken urteetako bilakera izan duela, hau da, «jende askok hartzen duela

parte», aipatu zuen. «Herriak duen musikarako lotura handia erakusten du horrek», gehitu zuen kultur zinegotziak.

## Kultur Etxearekin, «harro egoteko moduan»

Antonio Maria Labaien Kultur Etxearen inguruan, «gustura egoteko moduan» gaudela, gaineratu zuen Iturzaetak. «Talde ugari biltzen dira bertan, eta hor argi ikusten da, beraz, herriko eragile desberdinekin Kultur Departamentuak duen jarrera irekia».

## Ekimenekin «gustura»

Era guztietako hainbat ekimen antolatzen dituzte urtean zehar Kultura sailetik: Tolosandblues, Mundua Tolosan, Gau Giro edota Ahoz Aho, esaterako. Balantze baikorra egiten dute hauen inguruan, eta Mundu Tolosan-en kasuan, adibidez, «lehen pentsaezina zen artistak ekartzeko lortu dela», aipatu dute. Gau Giroaren kasuan, berriz, tabernariekin elkarlanean aritu direla, eta «emaitza ona» izan dela azaldu dute.

Bestalde, Andoni Iturzaetaren esanetan, «Kultur Departamen-

tua, ahal duen neurrian edota aukera izan duen guztietan, saiatzen da herri ekimenetik sortzen diren jardunaldiak bultzatzen, eta horren adibide dira Alurr dantza taldearen emanaldia, *Evolove* ikuskizuna, edo liburu eta musika lan askorekin egin duen lana».

## «Zinemaren eskaintza berriak indarra hartu du»

Zinemaren inguruko politika berriak, hau da, bonuen salmentak indarra hartu duela azaldu zuen atzo Iturzaetak. «Egun ia euro baten truke ikus daitezke filmak Tolosan; hau Zine Klubeko enproposamen batetik etorri zen, eta esker-tu beharra daukagu, bete bete an asmatu baitzuten».

## Erakusketen gaia aztertu beharra

Aranburu jauregiak orain arte izan duen dinamika bera izan du 2008an. Hori azaldu dute erakusketen inguruan, hau da, batzuek arrakasta izan dutela, eta beste batzuek ez hainbeste. Beraz, aztertu egingo dute zertan aldatu dezaketen gai hori harrera hobea lortzeko herritarren artean.

## «Festekin azken urteetako ibilbidea sendotu dugu»

Bi jai nagusien inguruan ere egin dute balantzea; Inauterietan buruz, «herri ekimenetik sorturikoa bultzatu» dutela. San Joan jaien inguruan, berriz, «ahal zuten neurrian aurrekontua sendotu zutela esan dute, «eskaintza hobea izateko: izan ere, hobetzeko asko egon daitezke, baina azken 3-4 urteetan bilakaera oso positiboa izan dute». Kasu honetan, pasa den urtean martxan jarri zuten ekimena gogorarazi zuen Iturzaetak, hau da, pixkanaka eskopetak aldatzen joatearena arriskuak murrizte aldera.

**2009a To.pic zentroaren urtea**  
Aurrerantzean, beste kulturgune bat izango da herrian, eta hau aurren, udazkenetik egongo da prest. Horregatik, Andoni Iturzaetaren hitzetan, «To.pic zentroa zabalduko den urte izango da 2009». Honen inguruan, «txotxongiloek duten elementu pedagogikoa landuko dutela bertan nabarmendu zuen. Halaber, diru laguntza handiak jaso dituela Udalak proiektua aurrera eramateko gogorarazi zuen, eta horri esker, esanguratsua den eraikina zaharberri eta Euskal Herria plaza berri ahalko dela aipatu zuen. «Abesbatzen munduari nahiz beste alor askori lekua egingo dio zentroak, eta herriarentzat ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatuko gara».

## Aurrera begirakoak

2009ari begira, oro har, «bide beretik» jarraituko dutela zehaztu dute; hori bai, kontuan hartzekoa da, %20an murriztu dutela kulturari zuzendutako aurrekontua, beraz, «esfortzu berezia» egingo dutela esan zuten. Mundua Tolosan ekimena esaterako, aurren bi aldiz egin ordez, behin egingo dute. Dulce Pontes abeslaria eta Wim Mertens piano jotzailea etorriko direlarik, besteak beste. Monologoka bakarrizketa saioak ere ez dituzte egingo aurren, eta horren ordez, Asvineneak bultzaturiko Ahoz Aho izango da aurren ere.

Hala, Udal Liburutegiarekin, Udal Artxiboarekin eta jaiekin, bide berarekin jarraituko dute, baita zinemarekin ere. Azken honen martxan dagoen bonuen salmenta beste ekitaldietara nola zabaldu aztertuko dute.

Aurtengorako prestatuko dituzten ekitaldiak ere izango dira Eduardo Moco-roaren heriotzaren urteurrena eta Antonio Zavalaren heriotza dela-eta antolatutakoak. «Bestalde, aurrera begira, berdintasunari buruz egin daitezkeen gabeziak zuzentzen hasteko esfortzua egingo du Kultura Sailak Berdintasun Sailarekin batera», azaldu zuen kultur zinegotziak.

# Sutea piztu da Kondeaneko aldapako etxe batean

**Ezbeharrak** » Atzo, eguerdi aldera piztu zen, 14. zenbakiko 3. solairuan; segituan itzali ahal izan zuten suhiltzaileek.

ERREDAKZIOA

Atzo, 12:00ak inguruan, sutea piztu zen Kondeaneko aldapako 14. zenbakiko, hirugarren solairuan. Dirudienez, sutea piztu zen unean, etxebizitzan pertsona bat zegoen, bainugelan. Honek kea ikusi zuenean, bizilagunak ohartarazi zituen, eta ondorioz, ez zen zauriturik izan.



Kondeaneko aldapako 14. zenbakiko hirugarren solairuan piztu zen sua. J.G.

Suhiltzaileen hiru kamioi segituan bertaratu ziren ezbeharrak gertatu zen lekura, eta sua itzali ahal izan zuten. Hala, suhiltzaileak lanean aritu ziren bitartean trafikoa moztu beharra izan zuten. 13:30ak aldera bizilagunak euren etxebizitzetan sartu ahal izan ziren berriro ere, suhiltzaileen laguntzarekin. Sutea sortu zen etxebizitzan egongela erabat kiskalita geratu zen. Bertan, bikote bat eta euren hiru seme-alabak bizi dira.

Astebeteko tartean, Tolosan gertatzen den bigarren sutea izan da atzokoarekin, pasa den astean Soldadu kalean beste sute bat izan baitzen.

**@ Zure da hitza.** Zure inguru-tan ematen dizu eskualdeko egunkariaren webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Horretarako, *zurea da hitza* izeneko atalean sartu behar duzu, eta bertan sar dezakezu berria edo eskualdeari buruz esateko duzuna. Berriaz gain, argazkiak ere sartzeko aukera baduzu, gainera. Albisteak sartzaz gain, zure datuak sartzeko ere gomendatzen dugu, jaso ostean zurekin harremanetan jarri behar izango bagenu, beharrezkoa delako. Sartutako albistei buruzko iritzia ere ikus ditzakezu:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



Udan ere Alpeetako gailurrak elurturik izaten dira eta eguzkiak hauekin jolasten du itzalak sortuz. HITZA

# Alpeetako paisaia ederrak

**Amasa** » Egoitz Bengoetxea eta Gorka Lopezen argazkiak ikusgai daude gaurtik aurrera Kultur Etxean.

IMANOL GARCIA

Gaurtik aurrera eta otsailaren 1a arte *Alpeetako argiekin jolastuz* argazki erakusketa ikusgai izango da Amasako Kultur Etxean. Egoitz Bengoetxea amasarrak eta Gorka Lopez zizurkildarrak ateratako argazkiek osatuko dute erakusketa. Gaur bertan, 19:30ean, biek argazki-emanaldia egingo dute Kultur Etxean. Bertan, erakusketan azal-tzen diren argazkiez gain, beste batzuk ere erakutsiko dituzte.

Alpeetara egindako bi bidaietan ateratako argazkiekin osatu dute. 2006an Bengoetxea eta Aitzol Izquierdo billabonatarra joan ziren. Iazko udan, Lopez eta Bengoetxeaz gain, Sergio Montoya billabonatarra eta Koldo Etxetxipia tolosarra ere joan ziren.

Denak paisaiak dira. «Guri gustatu zaizkigun argazkiak jarri ditugu», azaltzen dute. Egunsentiak eta ilunabarrak nabarmentzen



Egunsentiak eta ilunabarrak dira argazkietako protagonistak. HITZA

dira argazkietan eta bitan bakarrik bidaietan joandako mendizaleak ageri dira.

Bi bidaietan, hiru bailaratan izan ziren, Suitzan dauden Saas-Gründ eta Zermatt, eta Frantzian dagoen Chamonix izenekoan. Bidaietan helburua Alpeetako mendietan ibiltzea zen eta ahal bazen, zenbait gailur egitea. Ezagunen ar-

tean eta bi urteak kontuan hartuta, Mont Blanc eta Monte Rossako Dufourspitz igo zituzten eta Cervino igotzen ere saiatu ziren 2006an. Argazki erakusketa egitearen ideia geroago etorri zen. Kontua da bai Bengoetxea eta bai Lopez argazkilaririk porrokatuak direla eta ehundaka argazki ateratzeko batera arazorik ez zutela izan.

**Egunsentiaren prozesu guztia** Bengoetxeak 2006an ezin izan zuten Cervino igo eta Gorka Lopezek 2008an Mont Blanc ere ez. «Baldintza txarrak zuden eta buelta eman behar izan genuen», azaltzen du Bengoetxeak. «Lainoa sartzen zen aldiro, elurra botatzen zuten, dena bustita zegoen... Ez genuen garbi ikusi eta itzuli egin gi-

nen». Lopezek gaineratzen duenez, «normalean mendiak ez baldin badizu uzten, alperrik da». Iazko udan Mont Blancera igotzen, lau mila metrotik gora 60 eta 100 kilometro orduko haizea egiten zien. «Hotza egiten zuten», gogoratzen du Lopezek. «Aterpetxe baten kanpoan, sartu ezinik geundela, bost minututan txoritxoak bezala gelditu ginen. Sentsazioa 30 gradu zero azpikoa zen».

Alpeetako alturretan zaudela, eguzkia beheago ateratzen da, horizontea urrutiago dago. «Egunsentiaren gorritasun horrek gehiago irauten du», dio Bengoetxeak, eta aukera ematen zien eguzkiak sortutako argiekin jolasteko. «Alpeetako gailurretara igotzeko gauerdian atera behar zara, linternekin», gaineratzen du Lopezek, «eta egunsentiaren prozesu guztia ikusten duzu».

Lilurata etorri dira hango paisaiekin. «Monte Rossako aterpetxera joatea eta ilunabarra ikustea bakarrik, Alpeetako glaziar handienetako baten gainean... zoragarria da», diote biek eta batera bizi izan zuten unea gogoratzen du Lopezek: «Batera geunden ilunabarra ikusten, Cervino mendia parean zegoela. Ez zuen hotzik egiten. Beste biak telefonoz hitz egiten zeuden. Halako ederra zen ikuspegia, une batean Egoitzek; Ufff! egin eta nik baietz esatea besterik ez nuen egiterik».

txokoa  
h

2 sarrera pare zozketan!

ANTZERKIA

irabazleak:

- Kontxi Amondarain Ibarluzea (Anoeta)
- Amaia Garcia de Iturrespe (Tolosa)

Urtarrilak 23 • Ostirala • 20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAren harpedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.





Atzo Leiztan elurra egin zuen berriz, baina ez zen zuritzera iritsi. ASIER IMAZ

Elur malutak lurrera iritsi aurretik bide luzea egiten du eta jasaten dituen tenperaturen arabera, bere itxura modu batekoa edo bestekoa izango da; hezetasuna, 0 gradu inguru eta atmosferan partikula txikiak behar dira.

## Mara-mara, malutak

### ERREDAKZIOA


**O**hikoa bihurtu da Tolosaldeko eta Leitzaldeko parajeak zuri ikustea. Leihotik begiratu eta mara-mara ari duela zenbat aldiz esan ote dugun udazken-negu honetan. Hilabete batzuk daramatzagu elurra ikusten (askok jasaten eta pairatzen). Askok ez dute gogoan izango noiz ikusi zuen lehen aldiz elurra, oso txikia izango baitzen. Geure bizibidearen arabera, elurra modu batera ala bestera ikusiko dugu, egoera ekonomikoak baldintzatzen du hau ere... Dibertigarria izango da batzuentzat, eta beste batzuentzat, traba.

Baina ezin saihestu ordea nola baitoke poza sentitzea elurra egiten hasten den urteko lehen aldiari behintzat. Haurtzaroko garaia ote datozkigu burura? Egunak igarotzen ahal, elurra turistentzat pozgarria izango da eta eguneror jasan behar dutenentzat, lasai hartzekoa.

Elurra zer den jakina da, baina ez da hain ezaguna malutak nolakoak diren, ez eta nola sortzen diren ere. Izan ere, elur-maluta guztiak desberdinak dira. Halere, guztietan, hezetasuna eta hotza ezinbestekoak dira elur-malutak sor daitezten.

Elurra egiteko tenperatura baxua behar da, eta baita atmosferak elur-malutak sortzeko adina hezetasuna edukitzea eta airean partikula txiki-txikiak egotea. Adibidez, hautsa edo harea bezalako partikulen presentzia beharrezkoa da.

Hodei altuetan, hotzaren presentzian, airean dagoen ur-kantitate partikula txikien inguruan izotz-kristal forman kondentsatu egiten da. Izotz-kristalek behar adina pisu hartzen duten heinean,



Bidegoian inguruko mendietan ere elurra egin zuen. N. URBIU

lurrerako bidea hartzen dute. Bide horretan, tenperatura desberdineko aire-geruzak igarotzen dituzte eta lurreraino iritsi ahal izateko, bidean urtu ez daitezten, iragaitzen dituzten aire-geruzek 0 gradu azpitik egon behar dute. Atmosfera epelagora erortzean, izotz-kristal mikroskopikoak elkartu egiten dira: horra elur-malutak.

### Temperatura egokia, partikula txikiak eta hezetasunik gabe...

Baina nahikoa da hiru baldintza horietako bat ez betetzea elurrik ez egiteko. Tenperatura altuegia bada, ur-tanta horiek euri bihurtzen dira. Tenperatura baxuegiak badaude ere ez du elurrik botako. 0 gradu ingururen bueltan egiten duen badu, izotz-kristalxoak elkartu egiten dira, baina tenperatura gehiegi hoztean, hezetasun-eskasiagatik, gero eta zailagoa izaten da

kristalxoak elkartzea. Horregatik 20 gradu zero azpitik egiten duenean ia ezinezkoa da elurra egitea.

Elur-maluta bizkirik beraz, ez dago; hori lehenik ikertu zuen zientzialaria Ukichiro Nakaya izan zen. 1936an, elur-malutak ikertzen ari zela, airearen tenperatura zertxobait aldatuta izotz-kristalaren forma aldatzen zela ikusi zuen. Nahiz eta bizi-iraupen laburra izan, elur-malutak egiten duen lurrerako bidean topatzen dituen tenperatura desberdinak zeharkatzeak baldintzatzen du bere bukarako itxura.

Kalifornian, Ken Libbrecht fisikariak, elur-malutak sortzeko baldintza egokiak ziurtatzen zituzten gela-hotzetan, «elur-malutaren enbrioia, hauts-partikula txiki baten inguruan biltzen den ur-molekulaz osaturiko hexagono-formako prisma bat» dela esan zuen.

Elur-maluta guztiak, beraz, oinarri bera dute. Baina hartzen duen forma izotz-kristalaren azaleran sortzen den geruza ia likidoaren-gatik da.

Geruza hori eratzeko bi faktore hartu behar dira kontuan: kristalaren azalera eta tenperatura. Izan ere, geruza hau kristalaren azaleraren arabera tenperatura batean edo bestean sortzen da. Bestalde, azpimarratzekoa da geruza ia likidoa duten elur-malutak askoz azkarrago handitzen direla, geruza horrek elur-malutari behar duen hezetasuna ematen baitio.

Are gehiago: tenperaturaren arabera, elur-maluta zein formatan hazten den identifikatu dute. Elur-maluta tenperatura hotzetik pasatzen bada, besoak luzeagoak dauka malutak. Tenperatura epeltzen bada, berriz, besoak loditu egiten dira.

Guztira, elur-malutak bost taldeetan sailka daitezke eta forma horiek elurra eratu den unean zegoen tenperaturaren adierazleak dira. Elurra aztertuz, altitude batean eta bestean dagoen tenperatura eta atmosferako aire-geruza desberdinak identifikatu daitezke.

Argi gelditu da behintzat, bi elur-maluta berdin sortzeko, bi prisma berdinek mikro eremu berdinak zeharkatu beharko lituzketela, eta hori, ia ezinezkoa da.

### Elurraren magia

Elurra magia moduko bat dauka: etxean harrapatuz gero, leihotik begiratu eta bertan orduak gelditzeko gogoia ematen du, giroak isilagoa dirudi, eta inoiz baino indartsuago sentitzen dugu etxeko berogailuen aire beroa.

Elurra zapaldu behar denetan, oinetakoekin egindako aztarna begiratzea nahiko ohikoa izaten da ere, eta badirudi, euria egiten duenetan baino hotz gutxiago egiten duela, nahiz eta merkurioak hori ez markatu.

Isiltasuna handiagoa dela esan da. Ez da berdina hiri batean entzuten dena elurretan dagoenetan ala euritan dagoenetan. Arrazoi logikoa izan dezake: auto gutxiago ibiltzen da elurra ari duenetan, lurraren gainean malutak atseten hartzen dutenean ez dute ia soinurik ateratzen (ez euri tantak bezala behintzat), kalean jende gutxiago ibil daiteke... Baina bada arrazoi akustiko bat ere: elurra geruza bat eratzen du, goraka dihoana. Nolabait esatearren, espazioa jatorra izan, solidoa da, bai lurrean eta baita malutak egiten duen bidean ere. Solidoak soina irensten du (gela bat hutsik dagoenean erreberberazioa dago, eta altxariak sartu ahala, desagertzen jotaten da).

## Laburrak

### D3M plataformaren aldeko sinadurak etzira arte

**ALEGIA** ● Martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartzeko ezker abertzaleak aurkeztutako Demokrazia 3 Milioi (D3M) plataformaren aldeko sinadura bilketen harira, Alegian ari dira sinadurak biltzen. Asteazken zehar goizetan eman daiteke, baina bada jende bat ezin duena orduetegi horretan, eta beraz, larunbata bitarte izango da aukera sinatzeko, larunbata barne. Egun horretan (hilak 24) 11:00etan hasi eta 13:00a bitarte, orduan itxiko da epea.

### Maritxu, Joxepi eta Kororen ikasleen bazkaria

**AMEZKETA** ● Amezketako ikastetxean ibilitako ikasleek bazkaria egingo dute otsailaren 1ean. Guztiak elkartzeko asmoa dute, «gure alde-erño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin behartzana jateko bazkaria bat eginez». Joateko asmoa duenak alde zaurerik eman beharko du horren berri telefonoz deituz: 943 65 05 99 (Arantxa), 669 479 493 (Joseba), 943 24 00 21 (Itxaso) eta 652747320 (Garbiñe). Ez da kinto bazkari bat izango, aipatutako irakasleekin ikasi duten guztien arteko bazkaria baizik. Aste honetan zehar deitzea komeni da.

### Intxurreko lurraldekako etxean ariko dira etzi

**ALEGIA** ● Intxurreko lurraldekako futbol taldeak etzi Alegian jokatu du Gazteak taldearen kontra 15:30ean hasita. Luogera maila jokatzen ari dira eta oraingoan, 8. doaz sailkapen nagusian, atzetik bitalde izanik. Etxikoa laugarren jardunaldia izango da. Gogor egin beharko diete aurkariari, taulan gora egiteko eta datorren denboraldian berriz lehen mailan aritzeko.

### Eskualdekako ere VI. Berria Txapelketan

**PILOTA** ● VI. Berria Txapelketa hasia da dagoeneko, Euskal Herriko pilota eskola onenari ari direlarik. Tartearen, Aurrera-Saiak eta Zappi-Ilturri daude. Oraindik ez dira jokatzen hasi, aurreko urtean izandako emaitza onengatik eta zuzenean bigarren kanporaketan daude. Aurrera-Saiak eztsailaren 6ko asteburuan jokatu beharko du Arrasateren kontra eta Zappi-Ilturrik, zehazteke dagoen eskolarekin, baina Txumulutxueta eta Danok Lagunak dira dauden aukerak eta asteburu honetan jakingo da.

Beti Añai

jateak

Garaian garaiko janariak

Arraikietan berezia

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Sendi Ekintza elkarteak filosofia aldatuko du larunbateko batzarrean. R.CALVO



Elkarteak Pilota Eskola ere badu; 27 ume aritzen dira. HITZA

## Aro berri bati eman nahi diote hasiera Sendi Ekintzako kideek

**Ibarra** » Elkartearen izena eman duten bikote gazteri txanda eman eta aldaketa sakonak egiteko unea iritsi dela diote.

REBEKA CALVO

50 urte inguruko historia du atzean; Cabezas de Familia izenarekin hasi zen, Asociacion Familiar izatera pasa zen eta aspalditik guztiek ezagutzen dute bere euskarazko izenarekin, Sendi Ekintza elkarte bezala, alegia.

Urte hauetan guztietan zehar herriaren alde lan egiten aritu da elkarteak. Ez da lan erraza izan, muga asko gainditu behar izan dituzte, eta aldaketa eta inflexio-puntu askoren ondotik, aurren beste aro batean murgiltzeko garaia ere iritsi zaio Sendi Ekintzari.

Izan ere, urteak joan ahala bizi-modua aldatu da, familia ereduak, aisialdiarekin disfrutatzeko erak... «Elkartearen orain umeak dituzte bikote gazte asko ditugu eta honek

lan egiteko eredu aldatzea ere eskatzen du», argitu du elkartearen lehendakari den Eli Nosellasek. Asteazken zehar eskola bukatu eta handik pasatzea besterik ez dago hau ikusteko; umeei merienda ematen ari diren bikote asko biltzen da elkartearen.

Baina jo dezagun atzera elkartearen orain bizi duen «aldaketa» umea ulertu ahal izateko. Arestian aipatu bezala elkarteak ia 50 urte ditu. «Elkartearen ditugun lehen dokumentu eta agiriak 1963. urtekoak dira, baina egia da agiri asko desagertarazi egin behar izan zirela Francoren garaia zelako oraindik. Baliteke elkarteak urte gutxi batzuk gehiago ere izatea», argitu du Nosellasek. Sendi Ekintzak beti izan du helburu «soziokulturala», hau da, urtean zehar beti egin izan ditu herritarrei zuzendutako zenbait ekintza. Hitzordu kopurua zein ezaugarriak aldatzen joan dira, baina badira urtero egiten diren zenbait kontu: gazte festetako tortilla eta txokolata jatea, San Bartolome jaietako txekor-erretzea,

Elkartearen Eguna... Pilota zein dantzak eskolaz ere badituzte. Pelota Eskolan egun 27 ume daude, hiru mailatan banatuta daude: prebenjaminak, benjaminak eta alebinak. Udalarekin, Pilota Kirol Aniztasuna elkartearekin eta Uzturpe Ikastolarekin batera sinatutako akordioari esker pilota modalitate desberdinak (esku-pelota, zestapunta eta remonteak) gazteen artean sustatzeko egiten dute lan eta horretarako, inor ez baitago federatuta, eskolarteko txapelketak ere sustatzen dituzte.

### Familia kontzeptua

Ekintzak antolatzearekin batera, elkarteak beti izan du oso argi familia kontzeptu hori, eredu desberdinak kontutan hartuta, gorde behar zuela: «Hasieran Cabezas de Familia zen, urte askotan iraun zuten izen honek, 1977. urtera arte, urte horretan estatutuak aldatu eta Asociacion Familiar izena jartzea erabaki zen. Hasieran, Cabezas de Familia izenatik ondoriozta daitezkeen bezala emakumeek ezin zu-

ten bazkide izan. Ondoren, alar-gun ziren emakumeek bakarrik onartzen zituzten eta urteak pasata orain emakumeak arazorik gabe izan daitezke bazkide».

Hori bai, aldaketa edo irekiera hauek emateko lan handia egin behar izan dute batzuek, «zaila izan da lehen bazkide haiei eredu aldatzeko beharraz ohartaraztea, baina guk jada egin dugu bide hori eta orain berriek, gazteek, aldaketa berrietarako bidea ireki behar dute», esan du lehendakariak.

Eli Nosellas eta orain arteko juntakideek, hortaz, gazteei bidea irekitzeko egin dute lan eta orain «juntakide berriek aro berri bati eman beharko diote hasiera».

### Filosofia berria eta batzarra

Sendi Ekintzak aro berri bat hasiko du aurrean, «filosofia berria» jarriko dute abian. Hau guztia, etzi, hilak 24, egingo den batzarrean gauzatuko da. Horregatik egiten diete dei 300 bazkide ingururi bertan parte hartzera. Batzarra 19:00etan izango da eta ohiko den

gai ordenaz gain zuzendaritza berriak kargua hartuko du.

Azken urteetan bazkide askok ez dute ekintza eta erabakietan parte hartu nahi izan, baina hori aldatzeko garaia ere iritsi dela diote. «Konpromisoa hartu behar dugu, lanerako prest egon behar gara», argitu du.

### Aurtengo elkartearen Eguna egun osoko festa izango da eta aro berri bati emango dio hasiera

### Festako egitaraua osatu egin behar dute oraindik; txiriaren irekiera 19:30ean izango da

Sendi Ekintzak, hala ere, ez du filosofiaren oinarria aldatuko: «Herriari irekita egotea», hain zuzen. «Herriarrak gure elkartearen parte hartzera gonbidatzen ditugu, herrira irekita gauden elkarte osatzen dugun», gaineratu du.

Horiek horrela, aro berri honi hasiera emateko urtero egin ohi den Elkatearen Eguna ere desberdina izango da. Otsailaren 7an egingo dute, egun osoko festa izango da, eta herri guztiari irekitakoa izango da.

## Hilberriak

### SABINO ARANGUREN ETXEBERRIA



Beti gogoan izango zaitugu

Zestoako Artano familiak

ZESTOA  
2009ko urtarrilaren  
22a

Oharra: hileta elizkizuna gaur izango da, 19:00etan, Zestoako parrokian.

### ALBERTA BALERDI GOYALDE

Andrea

Urtarrilaren 21ean hil zen 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

-Golanbego-



Bere senarra: Jaxinto Eizmendi; seme-alabak: Begoña eta German, Joseba eta Rosi, Peio eta Ana, Belen eta Manuel (i); bilobak: Asier eta Garazi, Itziar eta Dubi, Igor eta Pili, Aloña eta Garikoitz, Iker, Julen; birloba: Oneka; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Bere animaren alde otowitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JESUSEN BIHOTZA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Oriamendi, 8-1 esk.

Oharra: Gorputza bera Tolosako Funeraria Vascongado beltategian egingo da, gaur goizeko 11:45ak arte.



VILLABONAN  
2009ko  
urtarrilaren 22an

### KARMEN URKIOLA MUJICA

(Migel Garinen alarguna)

G.B.

Gureganako beti izan duzu maitasuna ezpainetan irudi hori gordeko dugu beti gure barneetan.

ESKERRIK ASKO AMONA



OLABERRIA  
2009ko  
urtarrilaren 22a

Ione eta losu, Ioseba eta Ewa, Asier eta Eneitz, Larratiz eta Ioseba, Aitor eta Oihana, Iñigo eta Leire

# Leitzako Ihoteak etzi hasiko dira asteartean amaitzeko

## ASIER IMAZ

Eguraldiaren iragarpena ikusiz gero aurten Leitzako Ihoteetan ez du elurrik egingo. Hala eta guztiz ere, herritarrek eta oro har festazaleak zerura begira jarrita daude, ospakizun handien lurrina baitakar asteburu luze honek Leitzan eta, inork ez du nahi eguratsa oztopo izan dadin.

## Egitaraua eta ohar pare bat

2009ko Ihoteak bihar jarriko dituzte martxan eskolako ikasleek, mozorroturik kalejira egiteko asmoa baitute herrian barna.

Eskolagariak atzean utzi zituzten herritarrek etzi helduko diote jaiari, eskalarien bazkariarekin. Hortik aurrera, asteartera arte, kolore eta zapore guztietako ekital-

diak ikusteko aukera egongo da Leitzan.

Antolatzaile lanetan aritu diren herritarrek, bi ohar zabaldu nahi izan dituzte: alde batetik etxeetako balkoiak apaintzea eskatu dute eta bestetik, otorduetarako txartelak epearen barruan hartzea gomendatu dute.

## Barrikotea Torrean

Ilbeltzaren 27an, asteartean, Torrean Barrikotea ospatuko dute 21:30ean. Bakailao tortila, bakailao takoak piper berdearekin, txuleta, limoi eta kaba sorbetea eta kafea eta kopa izanen dira menuaren osagarriak.

Izena emateko epea ilbeltzaren 26ean, astelehenean, amaituko dela jakinarazi dute Barrikotearen antolatzaileek. Menuak 26 euroko kostua dauka.

## » IHOTEK

### Ilbeltzak 24, etzi

- **14:00.** Eskalarien bazkaria Aurreran dohan.
- **16:00.** Eskea herriko etxeetan. Trikitilariak, txistulariak, atxauretuak, gaiteroak...
- **02:30.** Atakabelta Gaztetxean Karaokera.

### Ilbeltzak 25, igandea

- **12:00.** Atsaurek *Incansables* txarangarekin Plazatik aterako dira. Gurdia ohiko lekutik, industrial-detik.
- **12:00.** Txu Txu trenan herrian barna.
- **14:30.** Atsauren herri bazkaria.
- **16:00etan.** Txu Txu trenan herrian barna.
- **18:00.** *Incansables* txarangarekin kalejira eskoletatik.
- **18:30.** IKA euskaltegiak eta Bertso Eskolak antolatutako Bertso

Jaialdia zinean dohan. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Diego Riaño. Gai-jartzailea: Jainkoa.

- **19:00.** *Laiotz* taldea Karra-pen.
- **23:30.** *Laiotz* taldea Karra-pen.
- **Ondoren.** *Incansables* txaranga.

### Ilbeltzak 26, astelehena

- **09:00.** Baserrietako eskea: Gorritaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta *Incansables*-ekin.
- **16:00.** Puzgarriak egongo dira Amazabal pilotalekuan.
- **19:00.** *Gau-Bela* taldea Karra-pen.
- **23:30.** *Gau-Bela* taldea Karra-pen.
- **Ondoren.** *Incansables* txarangaren musika.

### Ilbeltzak 27, asteartea

- **09:30.** Baserrietako eskea: Erasote auzora.
- **11:30.** Umeentzat ekitaldia: *Musika tresnen fabrika* Sointek Produktioak-en eskutik.
- **14:30.** Aurrera Elkartearen bazkaria.
- **16:30.** Ume eta gaztetxoek kalejira plazatik irtenda. Heurrekin *Incansables* txarangaren musika edukiko dute.
- **Ondoren.** Txokolatada, buru handiak, musika plazan eta goxokiak banatuko dira.
- **18:30.** Garai bateko Atsauren kalejira.
- **19:00.** *Gau-Bela* taldea Karra-pen.
- **23:30.** *Gau-Bela* taldea Karra-pen.
- **Ondoren.** *Incansables* Txaranga.
- **03:00.** Ihotei amaiera emateko DJ Guti.



Udaletxeko balkoian dagoen Atsaurea elurrari begira. A. IMAZ



Iragan urteko Ihoteetan atsauren kalejira. NEREA URBIZU



## Mus Txapelketaren finalak etzi

**LEITZA** • Iparra Hegoak, Bai Euskal Herriari ekimenak eta Orreagak elkarlanean Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatuko dute Leitzan urteko lehen hilabete honetan. Lehen jardunaldia iragan asteburuan jokatu

zen Torrean. Bertako irabazleek etzi finalak jokatu dituzte Betrizenean 17:00etatik aurrera. Bikote onenak axuria jasoko dute. Bigarren geratzen direnek txuleta eta hirugarrenenak bi oilasko. A. IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Idaia:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra/Idaia:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza/Idaia:** 687 410 118. leitzaidea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-teak III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean.
- **Amezketak.** Amezketako ikastolan ibili zirentzat elkartzeko asmoa dute, andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin Behartzana jatetxean bazkari bat egingez. Harremanetan jartzeko telefono zenbaki hautera dei daiteke: 943 65 05 99 (Arantxa), 669 47 94 93 (Joseba), 943 24 00 21 (Itxaso).
- **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan Belabieta kiroldegian izango den Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen Piratak ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte 6 eurotan Ibarrrako Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotaxon, Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Zurbeltz disko dendan.
- **Irura.** Festa Batzordeko bilera pasatu berri diren Eguberrien balantzea egindako dute; otsailaren 13an egingo diren kaldereroen inguruan hitz egin eta azken gaia urteko kultur-ekitaldien egitaraua aztertzea izango da.
- **Tolosa.** Larunbateko danborradako emakumeen bilera egingo dute gaur Kultur Etxean 19:00etan.
- **Tolosa.** Korrika 16 Tolosara apirilaren 2an, 10:00ak inguruan iritsiko da. Korrika batzordeak osatzeko bilera 19:30ean Lizardi kultur elkartean.
- **Tolosa.** Tolosako Orfeoieren

asanblada Kultur Etxean 20:15ean.

■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-teak 75 urte beteko ditu aurten. Argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Baz-

kideek, bazkide ohiek eta zerbait dutenek, elkartera eraman dezakete. Informazioa 655 738739 telefonoz zenbakietan.

■ **Tolosaldea.** Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkartea ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Bilketa hilaren 31ra arte.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Rios y mareas* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### Kirolak

■ **Alegia.** Iganderako Aralarrena mendi irteera antolatatu du Alegia-ko Mendi Asanbladak, Txindokiko zirkuitoa egingo dute.

■ **Tolosa.** Collarada eta Pic de

Moinesera irteera antolatatu du Oargi mendi elkar-teak hilaren 23tik 25era. Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta [www.oargi.org](http://www.oargi.org) helbidean.

■ **Villabona.** Villabona - Zubieta goizeko mendi irteera antolatatu du Aizkari mendi elkar-teak 25erako. Informazioa, [www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com) helbidean.

### Erakusketak

- **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai Lanbroa tabernan.
- **Tolosa.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziak eta denetan begia da jorratzen duen gaia.
- **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren olio-lanak eta akuarelak ikus daitezke Itaie tabernan.
- **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## A Agurrak



**Urte askoan Gari!**  
Jo ta ke, irabazi arte!

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.
- Ibarrrako Lurdes liburutegian.
- Villabonako Basajeun liburutegian.



1936KO GERRAKO OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI  
galtzaundi

hitza